



**Jokoa arautzeari buruzko maiatzaren 27ko 13/2011 Legeak erregulatutako jarduerak burutzen dituzten erakundeen komunikazio komertzialak murrizteko neurriak (11/2020 Errege Lege Dekretuaren 37. artikulua); neurriak, printzipioz, hilabetez izango dira indarrean, alarma-egoera bukatu ondoren**

Estatu osoan aritzen diren joko-operadoreen publizitatea murriztuko da, loteria komertzializatzeko izendatuta dauden erakundeena barne. Helburua da kontsumo konpultsiboa edo jarrera patologikoak eragin ditzaketan (batez ere adinez txikikoengan edo joko-asaldurak dituzten pertsonengan) ausazko online jokoen (adibidez: kasinoa, bingoa eta pokerra) kontsumoa handitu dadila ekiditea, uneotan eragin handiagoa izan dezaketelako.

Hala, **debehatuta dago COVID-19 gaixotasunaren ondoriozko salbuespen-egoerari erreferentzia egiten dioten edo egoera honetan jokatzera animatzen duten iragarkiak egitea.** Alarma-egoerak iraun bitartean, adierazitako erakundeek ezingo dituzte jarduera hauek burutu:

- Bezero berriak lortzeko edo aurrekoak fidelizatzeko sustapenak merkaturatzea, diruzenbatekoak, bonuak, hobariak edo deskontuak eskainiz, apustuak edo partidak doan emanez, kuotak edo sariak handituz edo antzeko mekanismoak erabiliz.
- Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen bidez publizitatea egitea edo bideoak bidaltzeko zerbitzuek plataformen bidez publizitatea merkaturatzea, saltzea edo antolatzea. Horretan, salbuespena izango da 1:00etatik 5:00etara arteko ordu-tartea.
- Informazioaren gizartearen zerbitzuen bitartez komunikazio komertzialak bidaltzea, posta elektronikoaren edo antzeko baliabideen eta sare sozialen bidez bidalitako komunikazio indibidualak barne.

## **TURISMOAREN ETA OSTALARITZAREN ARLOAN DAGOKION ERREKLAMAZIOA IZAPIDETZEA**

Kontsumitzaileak uste badu erakunde batek ezarrita dauden debekuak urratu dituela, salaketa jar dezake **Eusko Jaurlaritzaren Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzan.**

## **OHIKO GALDERAK**

**Zer neurri hartu dira adinez txikikoak eta pertsona zaurgarriak online jokoen aurrean babesteko?**

Debehatuta dago COVID-19 krisiaren ondoriozko salbuespen-egoera honi esplizituki edo inplizituki erreferentzia eginez jokatzera bultzatzen duten iragarkiak egitea. Halaber, online publizitatea nabarmen murriztuko da, joko-enpresen eta komunikabideen, internet-zerbitzuen eta bideoak bidaltzeko plataformen kasuan.



### **Jokorako iragarkiei zer murrizketa jarriko zaizkie, zehatz-mehatz?**

Apustu-etxeen iragarkiak goizaldeko 1:00etatik 5:00etara arteko ordu-tartean baino ezingo dira eman, telebista eta irratan nahiz plataforma digitaletan.

Horrez gain, ordu-tarte horretako publizitatea murriztu egingo da, eta, konfinamenduak iraun bitartean, apustu-etxeek ezingo dute asperraldiaz baliatu inolaz ere. Bezeroak fidelizatu edo berriak lortzeko sustapenak ere debekatuta daude.

### **Nora jo dezaket online jokorako iragarkiek murriztapenak hausten dituztela salatzen?**

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailari atxikitako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzara jo dezakezu.

**Ainhoa Orrantia**  
**Kontsumo Saileko Arduraduna**  
**TOLOSALDEKO KIUB**

